BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2470

740/2013 EBAZPENA, apirilaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoko zerbitzu erakundeetan posta-zerbitzua 2013, 2014 eta 2015ean egiteko kontratazioa Ogasun eta Finantzako sailburuari eskuordetzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-araubidea onartzen duen ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren V. kapituluaren eta lehen xedapen gehigarriaren, eta Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 172/2013 Dekretuko 12.d) artikuluaren arabera, Baliabide Orokorretako Zuzendaritzari dagokio kudeaketa zentralizatua duten eraikinetan Baliabide Orokorretako Zuzendaritzari esleitutako erabilera orokorreko gaiak edo zerbitzuak kontratatzea.

172/2013 Dekretuaren 12.a) artikuluak, halaber, zuzendaritza horri ematen dio eskuratze zentralizatua duten ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko prozeduren garapen-proposamena.

Gaur egun, posta-zerbitzuen kontratazio zentralizatuak lagundu egiten du zerbitzuen kudeaketa hobetzen, baita gastu publikoa arrazionalizatzen ere.

136/1996 Dekretuaren 19. artikuluak aukera ematen du Baliabide Orokorretako Zuzendaritzaren eskumenak kudeaketa zentralizatutakoak ez diren beste eraikin batzuetara hedatzeko. Hedapen hori hitzarmen bidez, administrazio-klausula zehatzen pleguetan aurreikuspen berariazkoa ezarriz, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean jasotako formulen bidez gauzatuko da.

Posta-zerbitzua –lehen aipatu eremuan– modu zentralizatuan kontratatu ahal izateko formularik egokiena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 13.1 artikuluan jasotakoa da –eskumenen eskuordetzea–, honakoa xedatzen baitu:

«1.– Herri Administrazioetako organoek beste organo batzuei beren eskumenak eskuordetzan eman diezazkiekete, baldin eta organo horiek administrazio berekoak badira, nahiz eta bata bestearen mendekoa ez izan, edo administrazio horiei lotuta edo administrazio horien mendean dauden zuzenbide publikoko erakundeetakoak badira».

Horregatik, 172/2013 Dekretuaren 3.2.f) artikuluak kontratazio-gaietan Ogasun eta Finantzako sailburuari ematez dizkion eskumenen arabera, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia kontratazio-organoa denez (abokazioz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 20. artikuluaren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen –4/1999 Legeak aldatutakoa–14. artikuluaren arabera), kontratazio-organoari legez ematen zaizkion eskumenekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

I.– Ogasun eta Finantzako sailburuari posta-zerbitzuaren kontratazioa eskuordetzea 2013., 2014. eta 2015. urteetarako (2016. eta 2017. urteetara luza daiteke).

Eskuordetzea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginari buruzko irailaren 14ko 3/2011 LEDn aurreikusitako honako arlo hauetara hedatuko da, kontratuari aplikatu beharrekoak diren neurrian:

– Kontratua prestatzea (II. Liburua).

– Kontratua esleitzea (III. liburua, I. titulua, I. kapitulua).

– Administrazioaren eskumenak, aldatzea, iraungitzea, lagatzea eta azpikontratatzea, IV. Liburuko I. tituluko I. kapituluan jasotakoak oro har, eta hornidura-kontratuetarako IV. Liburuko II. Tituluko IV. Kapituluan berariaz aurreikusten direnak.

– Kontratua formalizatzea (III. Liburua, I. Titulua, I. Kapitulua).

II.– Kontratazio organoari dagozkion bestelako eskumenak –bereziki, emandako zerbitzuen burutzapenari onespena ematea eta horien ordainketa agintzea– organo eskuordetzailearen esku gelditukо dira.

III.– Eskuordetze hau indarrean sartuko da sinatzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

ZENTRO-ZERRENDA ETA ZENTROKAKO ZENBATEKOAK

C001 Zerbitzu Zentralak	384.953,04
C051 Arabako Eskualdea.	2.880,00
C061 Emergentziak	3.141,60
C101 AUO - Santiago Egoitza	10.111,75
C102 AUO - Txagorritxu Egoitza	21.262,57
C121 Santiago Ospitalea	0,00
C141 Debagoieneko ESI	5.964,74
C221 Gipuzkoa Eskualdea.	5.194,56
C271 Gipuzkoa Mendebaldea	4.030,53
C301 Donostia Unibertsitate Ospitalea	36.533,77
C321 Bidasoako Erak. San. Integratua	7.428,00
C361 Goierri-Urola Garaiko ESI	4.230,18
C371 Debabarreneko ESI	6.722,28
C391 Gipuzkoako OS. Mentaleko Sarea	400,86
C421 Bilbo Eskualdea	4.449,93
C431 Barrualdeko Eskualdea.	152,67
C471 Ezkerraldea-Enkarterri ESK.	4.159,82
C491 Trans. eta Giza-EH. Euskal Zentroa	94.395,01
C501 BOMS – Bermeoko Ospitalea	231,63
C502 BOMS – Zaldibarko Ospitalea	544,92
C503 BOMS – Zamudioko Ospitalea	2.422,80
C504 Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea	2.171,28
C531 Santa Marina Ospitalea.	3.027,36
C571 Gorlizko Ospitalea	747,62
C621 Basurtuko Unibertsitate Ospitalea	30.131,28
C631 Galdakao-Usansolo Ospitalea	6.084,00
C651 San Eloy Ospitalea	7.027,80
C661 Gurutzetako Uniberts. Ospitalea	51.600,00